# Liburu Barriak

Askorik ez, baiña, tira, uzta polita izan dogu aspaldion euskal liburuetan. Pizkaka-pizkaka ba-doiaz gizendurik gure liburutegiak, eta pozgarri yaku au bene-benetan.

Sail galanta aitatu gura geunke emen, asko orrein artean. Baiña nai dan guztia ezin. Alan be, bi goraipatu gura ditut, laburkiro, besteak beste: *Amandriaren altzoan* eta *Urre-bitsa*.

I.—*Amandriaren altzoan* Julene Azpeitia idazle trebe ta fiñak egiña dogu, oraintsu Itxaropena irar-etxeak argitara emona, bere oiko liburu-sail Kulixka sortan.

Ainbat mesede euskal literaturari egindako andra jakitun eta euskaltzale benetako onek umetxoentzako ipuin moltso ederra batu ta antolatu dausku: batzuk Euskalerrikoak eta beste batzuk erbestetako literaturan zabal-zabal dabiltzanak dira, eta euskera gozo, errez ta bikaiñean esanak. Betoz orrelaxe beste sail asko be. Umeak ez dabela ezer irakurten esan oi dogu, baiña ez da orrela, umeak oso irakur-zaleak dira ta eurai dagokiona emon ezkero, irakurri ez-eze, iruntsi egiten dabe olangoa, *Tonto-lapiko*'gaz geure artean ikusia.

Zorionak biotzez Julene andreari. Ta jarrai bei bide ortatik.

II. URRE-BITSA. Olerki-liburua dogu au, Egieder'ek egiña. Ona bere guna: 1) Gogo-birunda; 2) Gogai-zurikota; 3) Zeru ta baratz; 4) Argi ta margo. 196 orrialde guztiz.

Sarri entzuna dogunez, olerkariak eta bertsolariak zuzpertu ta jasoko dabe gure euskera, baita arenganako sua ta maitasuna euskal biotzetan ixio ta sutatu be. Oneik, barriz, ez dagoz lotan, euren arloaren gora ta garrantzia ba-dakie antza, ta gizonak, bere dei ta bearkizunaren duin egiterakoan, gauza miragarriak egin daroaz.

Egieder olerkariak len «Uskeriak» emon euskuzan, «Uskeriak» izenez, baiña biotz-ikara joriak izatez; gure maixu aundi Orixe zanaren aburuz, gogarte-gai txanbeliñak. Orain, beste izen dotore pinpiriñez datorkigu zelaira: izadi zabala, itxasoa aparretan lez, urre-bitsetan bai dau ikusi. Egurastera urten dau, zein goiz zein arratsalde, ta naimon ta non-ai urrezko bitsa dario ingurumari».

